

Proiektuetarako jarduerak | 1. Blokea: Aurkezpena eta ekipoak antolatzea

Bigarren Hezkuntza. 12 - 15 urte

Goazen elkar ezagutzera

	Bigarren Hezkuntza 12 - 15 urte
	Maila Ertaina
	Denboralizazioa 8 saio
	Kideak 4 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

1. Ikasleek irudi bat sortuko dute eta definitzen dituen 5 hitz txertatuko dituzte bertan.
2. Ikasleek haien taldekideak bilatuko dituzte bingo antzeko txartela batekin.
3. Ikasleek aurkezpen kolaboratibo bat egingo dute elkar aurkezteko.

JARDUERAREN XEDEA

1. Nazionalitate nahasietako taldeak sortzea.
2. Elkar ezagutzea eta lehenengo kontaktua izatea.
3. Interakzio-dinamika batean parte hartzea TwinSpaceko tresnak edo erregistratu beharrik ez den beste online tresna bat erabiliz.

JARDUERAREN GARAPENA

1. Fasea: Prestatzea (3 saio)

1. urratsa: irakasleek haien ikasleak erregistratuko dituzte eta ikasleen pasahitzak jasotzen dituen zerrenda bat aterako dute ondoren haiei emateko.



2. urratsa: ikasleak TwinSpacen sartuko dira eta haien profilak editatuko dituzte (agurra, aurkezpena eta irudia).



3. urratsa: irakasleek orrialde publiko bat sortuko dute.



Orrialde horretan honakoak jasoko dituzte:

- Horma kolaboratibo bat (Dotstorming)
- Lehenengo jardueraren azalpena eta eman beharreko urratsak:
- 1. Ikasle bakoitzak irudi bat sortuko du **Fotoflexer** -en eta galdera hauei erantzungo die:
 - Zein da zure ikasgairik gustukoena?
 - Zein da zure kirolrik gustukoena?
 - Maskotarik al duzu? Zein motatako animalia da?
 - Zure ustez, zertan zara ona?
 - Zein da zure janaririk gustukoena?



Galdera horien erantzunekin eta CC irudi batekin (edo irudi propio batekin), ikasleak erregistroa behar ez duen irudi-editore batekin irudi bat sortuko du.



*Irudi-editore aholkatua: **Fotoflexer**. Ez da beharrezkoa erregistratzea.*

Testua gehitu eta gero, irudia deskargatu edo horman txertatzeko esteka erabil dezakezu.

2. Ondoren, ikasleek irudia horma kolaboratiboan txertatuko dute haien izenarekin edo lurraldearen izenarekin.



4. urratsa: irakasleek nazioarteko taldeetan antolatuko dituzte ikasleak.

1. Lanerako orrialde bat sortuko dute (lehenengo zirriborro bat). Taula bat izango du lurralde bakoitzeko irakasleek haien ikasleen izenekin osatzeko.
2. Ekipoak sortutakoan, orrialdea publiko egingo da ikasleek haien ekipoak identifikatzeko.
3. Ekipo guztiak **irakasle-tutore bat izango du** zereginean lagundu eta animatzeko.



5. urratsa:

1. Irakasle-tutoreak bere ekipoko ikasleen informazioan inspiratuko da aurkezpen bat egiteko bingoko txartelak erabiliz.

Nahi izanez gero, aurkezpen-txantilo hori erabil dezakezu kopia bat sortuz:



1. Ikasleei bingo txartel bana emango zaie.
2. Bingo txartel bakoitzak ekipoko gainerako taldekideei buruzko informazioa izango du, egokitu zaion ikasleak nor den esan dezan.

3. Ikasleek bingo kartoi bana beteko dute.



Tresna: *Googlen slideak*



2. Fasea: Praktikan jartzea (2 saio)

1. urratsa:

1. Irakasleek “Bingo!” orrialdea sortuko dute bigarren jarduerarako. Bertan, bingo txartelak betetzeko jarraibide orokorrak jasoko dituzte.
2. Jarraian, ekipo bakoitzarentzako azpi-orrialde bat sortuko dute.
3. Azpi-orrialde bakoitzean ekipo bakoitzak bingo txartelekin egindako aurkezpen editagarriak txertatu edo estekatuko dira.



1. Ikasleek haien txartelak behar bezala beteko dituzte. Horretarako, haien taldekideek horma kolaboratiboetan partekatu dituzten irudietako informazioa erabiliko dute, eta TwinSpaceko tresnak baliatuko dituzte haien kideekin komunikatzeko: profila, txata, mezuak, etab.
2. Denbora mugatua dute horretarako.



3. Fasea: Datuak biltzea eta jakitera ematea (3 saio)

1. urratsa: hirugarren orrialdea sortuko da. Bertan, ekipo bakoitzaren aurkezpen kolaboratiboa sortzeko jarraipenak emango dira. Horretarako, interakzio-jarduera hauetan informazioa jaso beharko dute:

- 1. jarduera: ekipo bat garen aldetik geure burua deskribatuko dugu.
- 2. jarduera: bikote bat garen aldetik geure burua deskribatuko dugu.
- 1. 1. jarduera: **zer dugu komunean?** Ekipoaren izena adostuko dute komunean dutena ardatz hartuta.
- **Komunean dituzten 3 gauza bilatuko dituzte.** Ez dute balio ez arropak ez ezaugarri fisiologikoeak.
 - **Meetingwords**-en bidez haie buruzko gauzak komentatuko dituzte eta “nik ere bai” edo “niri ere gertatzen zait” esaten duten arte.
 - Komunean dituzten hiru gauzak hautatuko dituzte eta ekipoa izendatuko dute.
 - Hiru gauzak finkatu ondoren, dagozkien hiru irudi bilatuko dituzte eta lehenengo diapositiba sortuko dute.

2. 2. jarduera: bikoteka, ikasle bakoitzak bere bikotekidea aurkeztuko du eta **hainbat galdera edo ekintza** egingo dizkio. Ikasleek aurkezpena osatuko dute emandako erantzunak erabiliz eta erantzunei dagozkien CC irudiak bilatuko dituzte osatzeok.

Hona hemen galdera/ekintzen adibideak:

- Esan zein kolore gustatzen zaizun eta azaldu zergatik aukeratu duzun.
- Sukaldeko objektu bat zara. Zein? Zergatik?
- Estatua/margolan bat aukeratu eta zeure buruaren argazki bat atera. Zergatik aukeratu duzu estatua/margolan hori?
- Egin zure lurraldean tipikoa den keinu bat. Zer esan nahi du?
- Bota zure bizitzari dagokion esaldi bat.



2. urratsa: ekipo bakoitzeko azpi-orrialdeak sortuko dira. Azpi-orrialde bakoitzak honakoa jasoko du:

- Esteka ekipo bakoitzeko Meetingwords areto batera.
- Esteka bat Driveko aurkezpen editagarri batera.
- Barne hartzen den aurkezpen bat aurrerapausoak ikus ditzaten.



Nahi izanez gero, aurkezpen txantiloai hau erabil dezakezu kopia bat sortuz:



3. urratsa: irakasleek proiektuaren egunerokoa osatuko dute eta ikasleekin komunikatuko dira ikasleek bertan uzten dituzten iruzkinen bidez.



4. urratsa: irakasleek orrialdeak TwinSpacen publiko egingo dituzte (dagoeneko egin ez badute) eta haien ikastetxeak sustatuko dituzte.

PRODUKTUA(K)/ AURREIKUSITAKO EMAITZA(K)

- Irudi editatua testuarekin
- Aurkezpen kolaboratiboa

TWINSPECEKO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK

- TwinSpace: profila, orrialdeak, txata, mezuak, foroa (aukera hori nahiago bada).
- Kanpoko tresnak: Dotstorming, Meetingwords, Googlen doc, Googlen slideak.